DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
DSS2016.EU

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
CAPITALE EUROPÉENNE DE LA CULTURE
EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE

# ARTISTAK, KULTURA KUDEATZAILEAK ETA IRAKASLEAK, HARREMAN MOLDE BERRIEN BILA

APIRILAREN 27 ETA 28AN,
2016 GUNEAN (Easo kalea, 43)

## TXOSTENEN PROGRAMA

APIRILAK 27

Catherine Leconte eta Carmen Lopez,
Anis gras Le lieu de l´autre zentroaren zuzendaria eta koordinatzalea.
ARCUEIL (France)
***Sorkuntza artistikoa eta mediazioa***
***Formak, espazio komunak eta denbora***

Anis Gras zentroa Paris inguruan kokatuta dagoen XIX. mendeko destilategi bat da, kulturgune eta sorkuntzarako egoitza bilakatu dutena. Arcueileko udalaren zentroa da, eta Ecarts elkartea arduratzen da proiektuaz. Proiektu hori bi interesguneren inguruan egituratuta dago: sorkuntza eta transmisioa, bi bide kalitate artistikoa eta demokrazia kulturala bateratzeko, erritmo eta egikera desberdinekin. Carmen Lópezek eta Catherine Lecontek, zentroko koordinatzaile eta zuzendariak, arte eszenikoak eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumeko edukiak

# ARTISTAS, GESTORES CULTURALES Y PROFESORADO, HACIA UNAS NUEVAS MANERAS DE RELACIONARSE

27 Y 28 DE ABRIL.
ESPACIO 2016 (C/Easo 43)

## PROGRAMA DE LAS PONENCIAS

27 DE ABRIL

Catherine Leconte y Carmen Lopez ,
directora y coordinadora del Centro ANIS GRAS
ARCUEIL (France)
***Creación artística y mediación***
***Formas, espacios comunes y tiempo***

El centro Anis Gras es una antigua destilería del siglo XIX del entorno de París convertida en espacio cultural y residencia de creación. El lugar pertenece al ayuntamiento de Arcueil y la associación Ecarts lleva el proyecto. El proyecto del lugar se estructura alrededor de una doble polaridad: la creación y la transmisión, dos maneras de asociar calidad artística y democracia cultural, con ritmos y maneras de hacer diferentes.

lotzen dituzten programak azalduko dituzte. Zentroak irakaskuntzarako plataforma irekia dauka. Bertan, zenbait irakasle eta artistak parte hartzen dute, eta horiek arduratzen dira ikasturtean garatuko dituzten proiektuak ebaluatzeaz, aztertzeaz eta aukeratzeaz. Horrez gainera, auzoko bizilagunekin gauzatzen dituzten beste proiektu batzuk ere aurkeztuko dituzte.

Ana Eulate, artista eta Pendiente Konpainiaren sortzailea.
***Sorkuntza ibilbidea. Zuria zuriaren gainean. Pendiente konpainiak/ Ana Eulat, Bartzelonako Mercat de Les Flors-ekin lankidetzan gauzatutako proiektua.***

Compañía Pendiente taldeak, Mercat de les Florsen laguntzaz, De un papel blanco lana sortu du, oinarritzat hartuta Txinako kondaira bat, non giza bertute eta talentu artistiko bikaineko margolari zahar bat eta haren ikaslea libratu egiten diren enperadorearen amorrutik, beren margolanetan barrena ihes eginda.

Antzezlanaren eraikuntza prozesuan, konpainiak zenbait mediazio jarduera egin zituen: lanaren inguruko koreografia lantegiak, beste artista batzuekin lan egiteko eta beste mintzaira artistiko batzuk lantzeko dantza tailerrak, gorputz adierazpeneko lanak, jendaurreko entseguak, hitzaldiak eta topaketak. Era berean, sorkuntzan parte hartu zuten Alocseko haurrek, baita Rognes eta Aix-en-Provenceko haur talde batek ere, haien artean kulturarteko elkarrizketa sortzea helburutzat hartuta.

Compañía Pendiente Mercedes Recachak eta Ana Eulatek sortu zuten, 1994an, eta, orduz geroztik, hainbat lan aurkeztu ditu konpainiak. Bere lanak ekoizteaz gain, hainbat musikarirekin elkarlanean aritzen da, eta zenbait proiektu pedagogikotan, truke proiektutan eta inprobisazioko proiektutan parte hartzen du. Dantza eta antzerkiaren alorreko jaialdi askotan parte hartu du Espainian, Europan, Europa ekialdeko herrialdeetan, Brasilen, Uruguain, Ameriketako Estatu Batuetan, Kanadan eta Errusian.

Filgi Claverie eta Xabina Claverie Urruty, Errobi Herri Elkargoaren kultura zerbitzuko arduraduna eta mediazio eta komunikazioko arduraduna, hurrenez hurren: ***"Hameka, lurraldeko mediazio kulturaleko proiektu bat"***

Errobi Herri Elkargoa udalen arteko erakunde bat da, 2006an sortua, eta Iparraldeko 11 udalerri barne hartzen ditu. 2013an, herri elkargoak bere gain hartu

Carmen López y Catherine Leconte, la coordinadora y la directora del centro, explicarán los programas que vinculan las artes escénicas con los contenidos del currículum dirigidos a educación infantil, primaria, secundaria y bachillerato. El centro cuenta con una plataforma de enseñanza abierta formada por profesorado y artistas que valora, analiza y selecciona los proyectos que van a desarrollar durante el curso. Además, presentarán otros proyectos que tienen con la comunidad del barrio.

Ana Eulate, artista y fundadora de la compañía Pendiente:
***"Un recorrido de creación. Blanco sobre blanco. Proyecto de Compañía Pendiente /Ana Eulate, con la colaboración y coproducción del Mercat de Les Flors de Barcelona".***

La Compañía Pendiente, con el apoyo del Mercat de les Flors, ha creado la obra De un papel blanco inspirada en una leyenda china en la que un viejo pintor, de cualidades humanas y talento artístico extraordinarios, se salva junto a su discípulo de la rabia del Emperador, huyendo a través de su propia obra.

Durante la construcción de la obra, la compañía realizó diversas actividades de mediación: talleres coreográficos entorno a la obra, talleres de danza en interacción con otros artistas y lenguajes artísticos, trabajos corporales, ensayos públicos, conferencias, encuentros. Asimismo, la creación contó con la participación de niñas/os de Alocs y con un grupo de niñas/os de Rognes y de Aix-en-Provence, con la idea de generar en ellos un diálogo intercultural.

Fundada por Mercedes Recacha y Ana Eulate en 1994, la compañía Pendiente ha presentado diversas obras hasta la actualidad. Paralelamente a sus propias producciones, colabora con diferentes músicos y participa en proyectos pedagógicos, de intercambio y de improvisación. Ha participado en numerosos festivales de danza y teatro en España, Europa, Países del Este de Europa, Brasil, Uruguay, Estados Unidos,Canadá y Rusia.

Xabina Claverie Urruty y Filgi Claverie, responsable de mediación y comunicación del y responsable del servicio cultural de la mancomunidad Errobi:
***"Hameka, un proyecto cultural de mediación del territorio"***

La mancomunidad Errobi es una entidad intermunicipal creada en 2006 que agrupa a 11 municipios de Iparralde. En 2013, la mancomunidad

zuen kulturaren konpetentzia, eta hiru ardatz nagusi garatzea erabaki zuen: arte eszenikoak, musikaren irakaskuntza eta mediazioa.

Arlo horretan, herri elkargoaren egitekoa da kultura ahalik eta pertsona kopuru handienaren eskura jartzea, eta tresna nahiz proposamen kultural ugari eskaintzea lurraldeko bizilagun guztientzat. Hori guztia, arte eszenikoen atalarekin eta Hameka Karrikako Arteen eta Euskal Antzerkiaren Fabrikarekin lankidetza hertsian.

Mediazio programak hiru ardatz nagusi ditu: eskuragarritasuna, akonpainamendua eta sentsibilizazioa. Bereziki bi hiritar talderentzat bideratuta dago: haurrak (Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleak) eta kulturatik urrunduta izan ohi diren pertsonak (adib. zentro espezializatuetan eta osasun zentroetan bizi diren gizon-emakumeak).

Martín Padrón, La Gomerako Koreografia Zentroko zuzendaria: ***"Gorputzaren etenaldia curriculumeko eduki gisa".***

Martín Padrónek, La Gomerako Koreografia Zentroko eta San Sebastián de La Gomerako Udalaren Dantza Eskolako zuzendariak, La Gomerako Koreografia Zentroko Koreografia Sailak hiru modulutan egiten duen lana azalduko du:

Alde batetik, La Gomerako Koreografia Zentroak konpainia egoiliarra dauka. Konpainia egoiliarra sorkuntzan esperimentatzeko espazioa da, eta bertan behin eta berriz eztabaidatzen eta berraztertzen dira presentzia eszeniko garaikidearen gaineko gaiak. Haren helburua da publikoarengan gorputz mintzaira berriei begirako sentsibilizazioa sortzea.

Beste alde batetik, egonaldi artistikoen moduluaren bidez, zentroan sortzaileak hartzen dituzte denbora tarte labur batez. Tarte horretan, sortze lanak garatzen laguntzen diete, eta sorkuntzaren sektoreak mugimendu arteetan zer toki duen eta gizartean nola eragiten duen azter dezatela sustatzen dute. Azkenik, egonaldi pedagogikoei esker, zentroak proiektu pedagogikoen gainean gogoeta egiteko gune bat eskaintzen die Dantzari Aplikatutako Pedagogiaren goi mailako graduko azken maila egiten ari diren ikasleei. Horretarako, La Gomerako Koreografia Zentroko Koreografia Sailak bere egoitzan hartzen ditu, eta egonaldiak eta dietak ordaintzen dizkie.

asumió la competencia de cultura, y decidió desarrollar tres ejes principales: artes escénicas, enseñanza musical y mediación.

Su labor en este ámbito consiste en dar acceso a la cultura al mayor número de personas y ofrecer numerosas herramientas y propuestas culturales dirigidas a distintos públicos residentes en el territorio, todo ello en estrecha colaboración con la sección de artes escénicas y la Fábrica de Artes de Calle y teatro en euskera Hameka.

El programa de mediación se articula en torno a tres pilares principales: accesibilidad, acompañamiento y sensibilización de públicos. Va dirigido especialmente a dos públicos prioritarios: los escolares (alumnos de centros de primaria y secundaria) y los públicos alejados (inicialmente, públicos residentes en centros especializados y centros sanitarios).

Martín Padrón, director del centro coreográfico de la Gomera.
***"La experiencia de la pausa en el cuerpo como contenido curricular."***

Martín Padrón, Director del Centro Coreográfico de La Gomera y Director de la Escuela Municipal de Danza de San Sebastián de La Gomera, explicará el trabajo que el Departamento Coreográfico del CCG realiza en los tres módulos que lo componen:

Por una parte, la Compañía Residente del Centro Coreográfico de La Gomera es un lugar de experimentación creativa, un lugar en el que se cuestionan y replantean constantemente los factores que giran en torno a la presencia escénica contemporánea. Su objetivo es sensibilizar al público a nuevos lenguajes corporales.

Por otra parte, el módulo Artistas Residentes nace con el objetivo de acoger a creadores durante cortos periodos para colaborar en el desarrollo de sus creaciones e invitarles a cuestionarse sobre el sector creativo en las artes del movimiento y sus repercusiones en nuestra sociedad.

Por último, las Residencias Pedagógicas proporcionan al alumnado de último curso de grado superior de Pedagogía aplicada a la Danza un espacio en el que pensar y reflexionar sobre proyectos pedagógicos. Para ello, el Departamento Coreográfico del Centro Coreográfico de La Gomera ofrece su sede, la estancia y dietas.

APIRILA 28

- Dantzagunearen GORPUTZALDIAK programak dantzak eskaintzen dituen tresna pedagogikoak eskura jartzen dizkie Hezkuntzako irakasleei.

- DANTZA ESKOLARA, dantza konpainia eta sortzaileen, eta ikasleen arteko zubia eraikitzeko Dantzabizek duen programa.

- ESKOLAK DANTZARA!, antzokietan programatzen diren dantza ikuskizunak ikasleengana gerturatzeko eta mugimendua ikasketarako tresna gisa erabiltzen ikasteko programa.

- IBARREKOLANDA AMETSAK DANTZAN, IES Ibarrekolanda Institutuak eta Muelle 3-ek, Tartanga IEFPSaren ikasleen laguntzaz, bultzatutako talde sorkuntza koreografikoa.

- Mugalariak programaren barruan Dantzaz konpainiak Hegoaldeko eta Iparraldeko bi ikastetxekin burutu duen TXORIAK proiektuaren lanketa.

28 DE ABRIL

- El programa GORPUTZALDIAK de Dantzagunea ofrece al profesorado de primaria herramientas pedagógicas que la danza puede aportar.

- DANTZA ESKOLARA, de Dantzabiz, un programa dirigido a generar un puente entre las compañías y creadores de danza y el alumnado.

- ESKOLAK DANTZARA!, para acercar al alumnado a las producciones de danza programadas en los teatros de las localidades cercanas y trabajar el movimiento como herramienta para el aprendizaje.

- IBARREKOLANDA AMETSAK DANTZAN, un proyecto de creación coreográfica colectiva pensado desde el instituto IES Ibarrekolanda y Muelle3 con la colaboración del alumnado del IEFPS Tartanga.

- El proyecto TXORIAK de la compañía Dantzaz llevado a cabo en el marco del programa Mugalariak, con dos centros escolares de Hegoalde e Iparralde.

MUGALARIAK

AHOTSAK
VOCES

DSS2016EU

donostiakultura.com